***Elkartasunarekiko konpromisoa***

# EROSKI BESTE URTEBETEZ BATU DA ELIKAGAI BANKUEN GRAN RECOGIDARA

- **Kanpaina azaroaren 13tik 15era egingo da, parte hartzen duten hipermerkatuetan, supermerkatuetan eta frankiziatutako saltokietan.**
- **Bezeroek diru-ekarpena egin ahal izango dute kutxatik igarotzean eta, saltoki batzuetan, galkorrak ez diren elikagaiak ere eman ahal izango dituzte.**
- **2026ko lehen seihilekoan, EROSKI Taldeak 14.000 tona elikagai baino gehiagoren xahutzea saihestu zuen eta 378 tona dohaintzan eman zizkien gizarte-erakundeei.**
- **Aurten 30 urte betetzen dira EROSKIk Elikagai Bankuekin lankidetzan hasi zenetik.**

**Elorrio, 2026ko azaroaren 12.-** Beste urtebetez, EROSKIk lankidetzan dihardu Gran Recogidan, Federación Española de Bancos de Alimentos (FESBAL) erakundeak eta haren bazkide diren Elikagai Bankuek bultzatutako elkartasun-kanpainan. Ekimena ostiraletik igandera, azaroaren 13tik 15era, egingo da, erakunde horiek ahultasun-egoeran dauden pertsonen eta familien alde egiten duten lana babesteko helburuarekin.

Kanpainaren hiru egunetan, bezeroek nahi duten zenbatekoa eman ahal izango dute kutxatik igarotzean. Ekarpena erosketa-tiketean agertuko da, eta Elikagai Bankuen eskura jarriko da, une bakoitzean behar dituzten oinarrizko produktuak erosteko.

Horrez gainera, EROSKIren saltoki batzuek galkorrak ez diren elikagaien bilketa fisikoa antolatuko dute azaroaren 13an eta 14an, Elikagai Bankuetako boluntarioek parte hartuta eta dendetako taldeen laguntzarekin. Eskuragarri dagoen parte hartzeko modua behar bezala seinaleztatuta egongo da saltoki bakoitzean.

Diru-dohaintzari esker, Elikagai Bankuek produktuen erosketa artatzen dituzten pertsonen beharretara egokitu ahal dute, eta biltegiratzea eta banaketa ere errazten zaizkie.

*«Beste urtebetez, gure bezeroek Gran Recogidan parte hartzea eta Elikagai Bankuen funtsezko lanean laguntzea erraztu nahi dugu. Kontsumitzaileen, boluntarioen, dendetako taldeen eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzak erakusten du elkarlanak behar gehien duten familiei erantzun zehatza emateko gaitasuna duela»*, azaldu du **Alejandro Martínez Berriochoak**, **EROSKIko Osasun eta Iraunkortasuneko zuzendariak**.

Bestalde, **Pedro Llorcak**, **FESBALeko presidenteak**, adierazi du: *«Federación Española de Bancos de Alimentos erakundearen eta bazkide diren 53 Elikagai Bankuen izenean, sakonki eskertzen dugu EROSKIk eta bere bezeroek Gran Recogida bezalako ekimen hain beharrezko*

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna**
Patricia Martín Sanchidrián
**Tel: 946 211 214** comunicacion@eroski.es

**INCÓGNITO - Prentsa bulegoa**
Silvia Peralta
**Tel: 917 379 950**

*batean izan duten inplikazioa. Gure helburua da une oro artatzen ditugun familiek behar dituzten elikagaiak eskaintzen jarraitzea. Halako aliantzak funtsezkoak dira gure lana sostengatzeko eta gizarte osoa lotzen duen elkartasun-katea bizirik mantentzeko».*

**30 urteko lankidetza Elikagai Bankuekin**

1996an du jatorria EROSKIk Elikagai Bankuekin duen harremanak. Ekimena Banco de Alimentos de Bizkaia erakundearen eta kontsumitzaileen beraien proposamenez sortu zen; kooperatibari elkartasun-ekintzak eskatzen zizkioten, talde desabantailatuei eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei zuzenduak. Urte horretan bertan hasi ziren elikagai-bilketako lehen kanpainak EROSKIren dendetan.

Hiru hamarkada hauetan zehar, lankidetza zabaldu egin da, elikagaien birbanaketa errazteko eta gizarte-erakundeei laguntzeko hainbat ekimenen bidez. 2025ean, EROSKI Taldeak Elikagai Bankuekin batera egindako kanpainei esker, 1.504 tona elikagai eman ahal izan ziren dohaintzan, sei milioi otorduren baliokide.

EROSKIri Urrezko Espiga Saria eman diote, FESBALek Elikagai Bankuekin egindako lankidetzagatik eta elikagaien birbanaketa solidarioari egindako ekarpenagatik nabarmentzen diren erakundeei ematen dien sari gorena.

**Elkartasuna eta elikagaien aprobetxamendua**

Gran Recogidan parte hartzea EROSKIk elkartasunarekin eta elikagaien xahutzearen prebentzioarekin duen konpromisoaren barruan sartzen da. 2026ko lehen seihilekoan, EROSKI Taldeak 14.000 tona elikagai baino gehiagoren xahutzea saihestu zuen. Horietatik, 12.141 tona giza kontsumorako produktuei zegozkien, 48 milioi otorduren baliokideak, eta 378 tona dohaintzan eman zitzaizkien gizarte-erakundeei.

Emaitza hori estrategia honen ondorio da: produktuak deskontu bereziekin merkaturatzea, gizarte-erakundeei dohaintzak egitea, elikagaien aprobetxamendurako plataformekin lankidetzan aritzea eta dendetako kudeaketa-prozesuak hobetzea.

Ekimen horiek Desperdicio Cero programaren parte dira, elikagai-galeren prebentzioan eta murrizketan oinarritutako eredua. Esparru horretan, EROSKIk ehun inguru gizarte-erakunderekin lankidetzan dihardu, kontsumorako egokiak diren elikagaiak behar dituzten taldeetara bideratzeko.

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna**
Patricia Martín Sanchidrián
**Tel: 946 211 214** comunicacion@eroski.es

**INCÓGNITO - Prentsa bulegoa**
Silvia Peralta
**Tel: 917 379 950**

**EROSKIri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta buruzagikide (kolider) da Balearretan. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzial omnikanalean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300 baino gehiago, berriz, bazkide eta jabe dira.

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna**
Patricia Martín Sanchidrián

**Tel: 946 211 214** comunicacion@eroski.es

**INCÓGNITO - Prentsa bulegoa**
Silvia Peralta

**Tel: 917 379 950**